

Pilota ♦ Jon Eizagirre joan zen aurretik markagailuan hamaikana jarri ziren arte

Ezkuraren bosgarrena

35-31 irabazi zion Eizagirreri Bingo Londres Torneoko finala

Estitxu Elduaen / Donostia

ORAIN hiru urteko Bingo Londres torneoko finala eka-
rri zuen gogora atzokoak:
orduan ere Koteto Ezkurra
eta Jon Eizagirre ziren
lehian, eta orduan ere 35 eta
31 irabazi zion nafarrak
gipuzkoarrari. Irabazteko
aukera asko zituen atzo ere
Eizagirrek, orduan baino
gehiago agian, baina Koteto
Ezkurak argi utzi zion
gipuzkoarrari oraindik errege
dela buruz burukoan.

Izerdi asko bota behar izan
zuen, ordea, Ezkurak, eta
estutasun dezente pasarazi
zion Eizagirrek. Norgehiago-
ka oso berdindua joan bai-
tzen hasieran.

Aurreko koadroetan koka-
tu zen Ezkurra, eta estreina-
ko sakea eta tantoa beraren-
tzat izan ziren. Eizagirre
indartsu atera zen, ordea,
eta berehala aurreratu zen
markagailuan 1-4. Hori iku-
sirik atzera jo zuen Ezku-
rrak, eta han gelditu Eizagi-
rreren pilotakaden zain. Ondo
asmatu zuen nafarrak, eta
markagailuan atzetik
joan bazen ere, zazpi aldiz
berdintzea lortu zuen 11na
egin zuten arte.

Orduan atera zuen Donez-
tebekoak aurreko lau finale-
tan garaipena eman zion
garra. Bere hamaikagarren



PABLO S. QUIZA

Jon Eizagirre -ezkerrean- eta Koteto Ezkurra -eskubian- atzo, Galarretan.

tantoa lortzearekin batera,
pilota aldatu zuen Ezkurak,
eta biziago bat atera. Sekula-
ko pilotakadak botatzen hasi
zen, eta Eizagirrek atzeko
koadroetara jo zuen. Hala
ere, 27 eta 15ko alde lortu
zuen Ezkurak, eta partidua
erabakita zegoela zirudien.

Orduan etorri zen, ordea,
nafarrarentzat sustoa. Bi

pasa egin zituen saketik, eta
sakea oparitzeaz gain, inda-
rra ere eman zion Eizagirreri.
Pixkanaka-pixkanaka tanto-
ak egiten hasi zen, eta 34 eta
31 gerturatzea lortu ere bai.
Urduri zen Ezkurra, baina
bere kirioiei eustea lortu
zuen, eta berarentzat izan
zen garaipena. Bere bosga-
rrena gainera.

Ezkurra, «Oso kontent»

Norgehiagoka amaitu ostean
esan zuenez, «oso kontet»
dago Koteto Ezkurra Bingo
Londres torneoa irabazteare-
kin: «Aspaldian jokatu
dudan final gogorrena izan
da, eta horrela gehiago dis-
frutatzen da. Bosgarrena da
gainera, hobeto ezin».

txokoan

Trinketeko Nazioarteko Irekia bihar

Trinketeko Nazioarteko Le-
hen Irekia bihar arratsean
abiatuko da Baionako Mo-
derne Trinketean. 10 edo 15
kintzeko bi jokotan egingen
dira partidak, eta berdinketa
kasuetan hirugarren joko
bat izanen da. Gainera, zen-
bait kasutan hiritartasun
bera ez duten jokalaria el-
karrekin ariko dira. Apus-
tuak trinketeko paretetan
sartuko dira baina molde be-
reziz, partida hastapenean
parioak egin eta irabazleen
artean sariak zozketatuko
baitira. Lehen partida paleta
gomazko pilotaz jokatu-
ko dute Miro (Argentina)-Lasal-
de (Iparralde) eta Laduche

(Iparralde)-Cimadamore
(Argentina) gizonetakoek. Ge-
ro, esku huskako partida jo-
katuko dute Beltran-Santa-
maria (Mexiko) eta Maite ku-
siek (Iparralde).

Unanue-Errandoneak erraz Lekeition

22 eta 10eko aldearekin,
aise irabazi zieten atzo Una-
nue eta Errandoneak Alusti-
za eta Arretxeri Lekeition.
Azken horiek irabazten hasi
ziren, eta Martin Alustizak
tanto politak lortu ere bai.
Baina Arretxe pilota asko
galtzen hasi zen orduan, eta
Unanuek ongi baino hobeto
aprobetxatu zuen hori.
Añorgakoa izan zen onena
atzo. Oso ondo jokatu zuen.

Beloki anaien ez dute jokatu Iruberrin

San Ramon Torneon, Belo-
ki anaiak Nagore-Armenda-
rizen aurka lehiatzekoak
ziren gaur Iruberrin, baina
Ruben Belokik partida ber-
tan behera utzi du, eskueta-
ko mina duela eta. Alusti-
zak eta Errandoneak joka-
tuko dute Beloki anaien
ordez.

Larronde-Sanglar bikoteak ez du jokatu

Euskal Herriko xare txapel-
ketan —EGUNKARIA
saria— bikote bat gutxiago
izango da hemendik aurre-
ra, Larronde lesionatuaren
ordezkorik ez dute aurkitu
eta. Atzoko jardunaldian,

Larrarte-Molinak 40-23 ira-
bazi zieten Artola-Funosasi,
eta Lopetegi-Iturbek 40-31
Iturbe-Bortheiruri.

gaurko partidua

IRUBERRI. 17:30.

• Muruamendiarrak-Inurategi / Arbizu-Navarro.
• Alustiza-Errandonea / Nagore-Armendariz.

CENICERO. 18:00.

• Gorostiza-Taberna / Minguez-Balerdi.
• Salaberria-Rai / Barberito VI-Errasti.

ELORRIO. 18:00.

• Berasaluze VII-Milikua / Berraondo-Matute III.
• Goñi II-Zezeaga / Olazola II-Elkoro.

LEKEITIO.

• Atxa-Sukia / Chafee-Auxkin.
• Eugi-Santi / Titin III-Berna.

VALENCIA DE DON JUAN.

• Dani-Biscouby / Haritz-Iparragirre.
• Capellan-Goñi III / Galarza V-Otxandorena.

Tenisa ♦

Tauziategaldu egin du EEBBetako Irekiko hirugarren kanporaketan

Capriatti 6-3, 1-6 eta
6-1 nagusitu zitzaion

Efe / New York

NATHALIE TAUZIAT la-
purtarrak adio esan dio
EEBBetako Irekiari, atzo
goizaldean galdu egin zue-
lako hirugarren kanpora-
ketako partidua. Jennifer
Capriatti estatu batuarrak
zuen kontrario, eta teo-
rian behintzat Tauziat zen
faborittoa, hamaikagarren
zerrendaburua zelako eta
Capriatti ez delako zerren-
daburua, baina estatu
batuarrak erraz irabazi
zuen: 6-1, 1-6 eta 6-1.

Hura izan zen emaku-
mezkoetan emaitzarik
harrigarriena, bestela ez
baitzen inolako ustekabe-
rik izan. Mary Pierce (bos-
garren zerrendaburua),
Lindsay Davenport (biga-
rrrena) eta Martina Hingis
(aurrena) aise sailkatu
ziren hurrengo kanpora-
ketara.

Bestetik, Jana Novotna
zortzigarren zerrendabu-
ruak tenisa uztekoan
dela esan zuen atzo, orka-
tila batean lesio sendaezi-
na duelako. «Arazo fisiko-
engatik ez banago beste
jokalarien kontra jokatzeko
moduan, eta ez banago
munduko hamar lehenen
artean egoteko moduan,
erretiratzeko aukera
aztertuko nuke».

Kuerten gogor ari da

Gizonezkoetan, Gustavo
Kuerten bosgarren zerren-
daburua gogor segitzen
du, eta hura da EEBBeta-
ko Irekia irabazteko fabo-
rito nagusietakoa, are
gehiago Pete Sampras
lehiaketa utzi egin behar
izan duenean. Kuerten
brasildarrak atzo 6-3, 7-6
(7-4), 3-6 eta 6-2 irabazi
zion Paul Haarhuis hola-
darrari. «Goiz da noraino
hel naitekeen esateko,
baina sasoi onean nago»,
esan zuen Kuertenek.

Orain Goran Ivanisevic
kroaziarra izango du aur-
kari. Gaur egungo Ivani-
sevic, baina, ez da garai
batekoa, une honetan
39.a baita munduko sail-
kapenean.